BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3146

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 17koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2013. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duen Aginduaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen Balorazio Batzordearen kideen izendapena eta osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 14ko Agindua, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2013. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Kontuan izanda aipatutako aginduaren 10. artikuluak adierazten duela, deialdi honetara aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko dela, eta kideen izendapena eta haren osaeraren argitaratzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez egingo dela.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Clara Montero Tellechea anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak (hiru aditu-profesional, aztertu beharreko diru-laguntza modalitateen gaiarekin zerikusia dutenak):

Araceli De la Horra Gutiérrez anderea

Fernando Pérez Gómez jauna

Ane Rodríguez Armendariz anderea

Idazkaria: Tamara Álvarez Fernández anderea (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Teknikaria).

Ordezko idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Teknikaria).

Bigarrena.– Honako Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 17a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.